



Sexu-jazarpeneko protokoloa gure erakundeetan aplikatzen

Data:

📅 Azaroak 12 eta 20

🕒 10:00etatik 13:00etara

Saiora sarbidea:

Azaroak 12:

<https://bit.ly/3kVfd3E>

Azaroak 20:

<https://bit.ly/3oWmliF>

Hartzaileak:

GGKEak eta interesa duten pertsonak.

Izen-emateak:

Azaroaren 11ra arte, esteka honen bidez:

<https://bit.ly/362vaPl>

Helburua

Azken Batzar Nagusian, Koordinakundeak bere Sexu-jazarpeneko eta sexuan eta sexu-orientazioan oinarritutako jazarpeneko egoeretan prebentzioa lantzeko eta esku hartzeko protokoloa onartu zuen. Protokolo horren helburua da sektorearekin zerikusia duten pertsona guztiek izan dezatela diskriminazio-jokabideei begira prebentzio, esku hartze eta erreparaziorako bide bat.

Jardunaldien lehen egunean, esan bezala, Protokoloa aurkeztuko dugu, eta pedagogia egiten jarraituko dugu, Koordinakundeak hiru alderditan (prebentzioa, esku hartzea eta erreparazioa) bere gain hartzen duen zereginaren garrantziari buruz. Horrez gain, beste gune batzuetan protokoloak nola aplikatzen diren ere jakiteko aukera izango dugu, bereziki unibertsitatean eta gizarte-erakundeetan nola aplikatzen diren jakiteko.

Bigarren saioan, genero-indarkerian aditua den emakume bat izango dugu, eta protokoloa abian jartzeko modukoak izan daitezkeen egoerak identifikatzen saiatuko gara. Jazarpenaren biktimak prozedura zein egoeratan abiatu dezakeen deskribatzeaz gain, adibide zehatzak aztertuko ditugu, eta eztabaidatu egingo dugu –eta, agian, baita adostu ere– zein kasu hartzen ditugun jazarpenzat gure gizartearen, gure sektorean eta gure erakundeetan.

Programa

Azaroak 12 10:00etatik 13:00etara

Jardunaldien aurkezpena.
Sofía Marroquín, Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko presidentea

Koordinakundearen Protokoloko funtsezko alderdien aurkezpena, genero-taldearen eskutik

Mahai-ingurua

Protokoloen aplikazioaren praktika.

Ana Vidu. Deustuko Unibertsitatea.

Tania Martínez. EHUko irakaslea.

Galderak eta eztabaida

Azaroak 20 10:00etatik 13:00etara

Babes-protokoloa zein kasutan abiatu behar den identifikatzeko tailerra.
Norma Vázquezek, Sortzen.

Antolatzailea:



www.ongdeuskadi.org

Laguntzaileak:

